

JEAN LOUIS DAVANT.—*Ipararen bila*. Euskal Literatura. Elkar.
Donostia, 1986.

Erromantiko kutsua nabari zaio Davanten lehen eleberri honi. Irudimenez, bere burujabetasuna hartu duen Zuberoa herri tipian kokatzen gaitu eta auzo urrunaren aurka, basa gerla batean sartzera doa, funtsezko arrazoirik gabe dirudienez. Iraultza garaian jokabide susmagarritzat begiko hartu zutenari egunkari salagarri bat bilatu diote eta hortik datoz arazoak. Horren ondorioak ematen dio argudioaren mamia eta aski ongi eramana da.

Zuberotar idazle honen literaturgintza interesgarria da gure giroan.

* * *

ROBERT LAXALT.—*Kafea hartzea Iruñean*. Itzultzailea: Xabier Mendiguren. Erdal Literatura. Elkar. Donostia, 1986.

Honelako eleberriak premiazkoak zaizkigu euskaraz, ez bakarrik hemengo gaia erabiltzeagatik, baita ere Laxalt-ek eleberrigile bezala erakusten digun ofiziotasunagatik, zeren gure artean ofiziotasunean bai dugu hutsunea, inon hutsunerik izatekotan.

Kontrabando gaia bera ez da lehen aldiz erabiltzen dena gure artean, P. Loti-ren *Ramuntxo* alde batera utzirik, Daskonagerrerena baino aisago, J.A. Loidiren *Amabost egun Urgain'en* ohizko polizi nobela baino hurbilago dago. Kontrabandoak holako gairik ematen du, P. Larzabalek ere erakutsi zigun zenbait antzerkitan baina baita ere hori nabari da J.B. Constantinek Haritchabalet apaizaren bizitzaz idatzi zuen hartan (ikus *Egan* 1985.eko 3-4 alean).